

# 2017/2018 ZAINZA ARAUDIA

## 1. ZAINZA:

Zaintza zerbitzua guraso elkarteak antolatutako ekintza bat da Aldaialde eskolako lankidetzarekin, eskola baita instalazioak uzten dituen. Ez dago gosari zerbitzurik baina gaitetak bezalako gauzak eskaintzen dira hamaiketakorainoko tartetxoa eramangarriagoa egiteko.

Guraso elkarteko zerbitzu bezala, zaintza zerbitzuak ere, eman ahal diren greba zein lanuzteekin bat egingo du hauek onartzen direnean Zaintza zerbitzua Aldaiaberri Guraso Elkarteak antolatutako ekintza da CEIP Aldaialde HLHI-ren kolaborazioarekin, ikastetxeko gelak utziz.

## 2. ORDUTEGIA:

Zaintza zerbitzua egunero 7:45etatik 9:30tara eskaintzen da, sarrera librean. Erabiltzaileek ezin dute 8 ordu baino gehiago ikastetxean eman; beraz, 4 urteko umeak (beteta edo urte amaieran betetzeko dituztenak) edo nagusiagoak eta jantokian geratzen direnak ezin izango dira zaintzara sartu 8:30ak baino lehen. Era berean, 8:30ak baino lehen zaintzara sartzen diren 2 eta 3 urteko umeak (beteta edo urte amaieran betetzeko dituztenak) ezin izango dira jantokian eta siestara bata bestearen jarraian geratu.

Asteazkenean 14:00tatik 15:00tara zaintza zerbitzua egongo da baita ere. Irteera librea izango da.

## 3. KUOTAK:

IRAILA GOIZAK	Ohiko erabiltzaileak	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
	Hileko kuota (€)	62,00	47,00	38,00	31,00	27,00	24,00	21,00	38,00	34,00	31,00	29,00	27,00	25,00	24,00
	Asteko kuota (€)	34,00	26,00	21,00	17,00	15,00	13,00	12,00	21,00	19,00	17,00	16,00	15,00	14,00	13,00
	Eguneko kuota (€)	8,50	6,50	5,50	4,50	4,00	3,50	3,00	5,50	5,00	4,50	4,00	4,00	3,50	3,50

IRAILA GOIZAK	Ohiko erabiltzaileak	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
	Hileko kuota (€)	22,00	21,00	20,00	28,00	27,00	26,00	25,00	24,00	23,00	22,00	21,00	20,00	20,00	25,00
	Asteko kuota (€)	12,00	12,00	11,00	16,00	15,00	14,00	14,00	13,00	13,00	12,00	12,00	11,00	11,00	14,00
	Eguneko kuota (€)	3,00	3,00	3,00	4,00	4,00	3,50	3,50	3,50	3,50	3,00	3,00	3,00	3,00	3,50

URRIA-EKAINA GOIZAK	Ohiko erabiltzaileak	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17
	Hileko kuota (€)	67,00	56,00	48,00	42,00	37,00	67,00	61,00	56,00	51,00	48,00	45,00	42,00	39,00
	Asteko kuota (€)	22,00	19,00	16,00	14,00	13,00	22,00	20,00	19,00	17,00	16,00	15,00	14,00	13,00
	Eguneko kuota (€)	5,50	5,00	4,00	3,50	3,50	5,50	5,00	5,00	4,50	4,00	4,00	3,50	3,50

URRIA-EKAINA GOIZAK	Ohiko erabiltzaileak	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
	Hileko kuota (€)	37,00	35,00	50,00	48,00	46,00	44,00	42,00	40,00	39,00	37,00	36,00	35,00	45,00
	Asteko kuota (€)	13,00	12,00	17,00	16,00	16,00	15,00	14,00	14,00	13,00	13,00	12,00	12,00	15,00
	Eguneko kuota (€)	3,50	3,00	4,50	4,00	4,00	4,00	3,50	3,50	3,50	3,50	3,00	3,00	4,00

URRIA-EKAINA ASTEAZKEN ARRATSALDEA	Ohiko erabiltzaileak	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
	Hileko kuota (€)	20,00	15,00	12,00	10,00	9,00	8,00	7,00	12,00	11,00	10,00	9,00	9,00	8,00	8,00
	Eguneko kuota (€)	7,00	5,00	4,00	4,00	3,00	3,00	3,00	4,00	4,00	4,00	3,00	3,00	3,00	3,00

URRIA- EKAINA ASTEAZKEN ARRATSALDEA	Ohiko erabiltzaileak	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
	Hileko kuota (€)	7,00	7,00	7,00	9,00	9,00	8,00	8,00	8,00	7,00	7,00	7,00	7,00	6,00	8,00
	Eguneko kuota (€)	3,00	3,00	3,00	3,00	3,00	3,00	3,00	3,00	3,00	3,00	3,00	3,00	2,00	3,00

Ohiko erabiltzaileen kuotak zerbitzua mantentzeko erabiliko dira. Esporadiko eta ez-ohiko erabiltzeen kuotekin (etekinak) zaintza gelan beharrezkoa den materiala (gailetak, pardelak edo beharrezkoa ikusten den edozer gauza) erosiko da, bankuen komisioak ordainduko dira, izaren garbiketa egingo da edo beste edozein gauzari aurre egiteko erabiliko da. Baita ere, aurreikusi gabeko gastu bati aurre egiteko erabili ahal izango da edo, beharrezkoa izanez gero, erabiltzeen kuotak mantentzeko edo guraso elkarteari laguntza ekonomikoa itzultzeko. Kurtso amaieran, hurrengo kurtso hasieran beharrezkoa den materiala erosi ahal izateko diru kantitate bat gordeko da (100 € gutxi gorabehera, beharrezkoa bada kuota bat ordaintzea zerbitzua bermatzeko), eta soberan geratzen dena, arduranunen esku geratuko da: irabaziak ohiko erabiltzaileen artean proportzionalki banatzeko aukera (ohiko erabiltzaile bakoitzak ordaindu duen ehuneko zerbitzuaren urteko prezioarekiko), guraso elkarteko diru kutxan sartzea edo gauza biak egitea.

Astean hiru egun edo gutxiago joaten diren esporadiko eta ez-ohiko erabiltzaileek eguneko kuota ordainduko dute egun bakoitzeko; lau egun edo gehiago doazenei asteko kuota ezarriko zaie.

Hilean hiru aste edo gehiago (gutxienez lau egun aste bakoitzeko) joaten diren esporadiko eta ez-ohiko erabiltzaileek hileko kuota ordainduko dute; hiru aste baino gutxiago doazenei asteko edo eguneko kuota ezarriko zaie, erabileraren arabera.

Iraileko goizeko zaintza zerbitzuak, urria eta ekaina bitarteko goizeko zerbitzuak eta asteazken arratsaldeko zerbitzuak independenteak dira, eta beraien prezioak eta ohiko

erabiltzaile kopurua ez doaz batera. Baina baten batek goizeko eta arratsaldeko zerbitzuak erabiliz gero batera kobratuko dira.

Ohiko erabiltzaileak ordainketa bakarra egingo dute hiruhilekoaren hasieran, hiruhileko horren hileko kuotekin bat datorrena. Esporadiko eta ez-ohiko erabiltzaileak hilabete bakoitzaren amaieran ordainduko dute.

Ordainketak banku giroen bidez egiten dira. Guraso elkartuko kide direnei bazkide izatean emandako kontu korrontetik egingo zaie. Guraso elkarteko kide ez direnei dokumentu berezi bat emango zaie baimena emateko ordainketa datuak zehaztu ahal izateko.

#### 4. ERABILTZAILE MOTAK:

Ohikoa: Gutxienez hilabetean hiru aste datorren erabiltzailea da (hiruhileko bateko konpromisoa onartutzat ematen da, hurrengo puntuan azalduta datorrena). Bost ohiko erabiltzailerik ez badaude, zerbitzuko gurasoekin eta guraso elkartearekin batera aztertuko da zer pausuak emango diren prezioen arabera. Guraso elkarreak dirua utziko balu, erabiltzaile esporadiko eta ez-ohikoen kuotekin itzuliko litzateke.

Ez-ohikoa: Zerbitzuaren erabilera ez jarraitua baina errepikakorra egiten duen erabiltzailea da, hilean hiru aste baino gutxiago beti (astean behin edo egun batzuetan geratzen dena, edo egutegi zehatz baten arabera geratzen dena, gurasoen laneko egutegia, adibidez). Aldez aurretik zerbitzua erabiltzeko asmoa duela adierazi behar du.

Esporadikoa: Inolako jarraipenik gabe edozein momentuan zerbitzua erabili nahi duen erabiltzailea da. Aldez aurretik zerbitzua erabiltzeko asmoa duela adierazi behar du.

#### 5. HIRUHILEKO BATEKO KONPROMISOA:

Ohiko erabiltzaileek hiruhileko bateko konpromisoa onartu behar dute. Denbora tarte honetan, hiruzpalau hilabeteko iraupena izan dezakeena (beherago azalduko da), dagokien kuota ordaintzeko konpromisoa hartzen dute. Epe honetan ohiko eta ezohikoen izaera ezin izango da aldatu.

Gutxienez ohiko 5 erabiltzaile ez badaude, erabiltzaileekin aztertuko da kuota berrien emaitza edo bestela guraso elkartearekin batera adostuko da falta diren kuotak guraso elkarreak beregain hartzeko.

Hiruhileko epeak zera esan nahi du: oporraldi luzeen artean ematen den tarte, hau da, urritik abenduaren bukaeraraino (geroago azalduko da irailean zaintza egoteko posibilitatea), urtarriletik Aste Santuraino, eta Aste Santutik kurtsoa bukatu arte (ekainaren amaiera). Lehenengo hiruhilekoak iraupen zehatza dauka eta urtero berdina da; alabaina, bigarren eta hirugarren hiruhilekoen iraupena Aste Santuaren arabera aldatzen da. Horrek zera ekartzen du:

- Matxoaren amaiera/apirilaren hasiera, apirilean eskola-ordu bakar bat izan gabe: hiruhilabetekoa urtarriletik martxoaren amaiera-arte, hau da, hiru hilabete.
- Apirilaren erdialdetik edo amaieratik, eskola-orduak apirilean izanda, bai bigarren hiruhilabetekoan zein hirugarrenean: hiruhilabetekoa urtarriletik apirilera doa, hau da, lau hilabete. Erabiltzaile bat ohikoa izanda, zaintza zerbitzua utziko balu hirugarren hiruhilabetekoan, kurtso amaieran dirua bueltako zaio, hirugarren hiruhilabeteko apirileko egunak hain zuzen ere.

Nahiz eta apirilean klaserik gabeko bizpahiru aste egon, zaintzaren prezioa ez da aldatzen. Zerbitzua eskaintzen duen enpresak aurkezten dituen prezioak hainbanatuta daude, urte osoko klaseko egun guztiak kontutan edukiz, hau da, prezioak konstanteak dira kurtso osoan zehar.

#### 6. ERABILTZAILE RATIOA:

GASCAK zehazten duen erabiltzaile ratioa begirale bakoitzeko 10 umekoa da. Ohiko erabiltzaileak ez badira minimora heltzen eta ez-ohiko edo esporadikoekin batera minimoa gainditzen bada zerbitzuan laguntza berezi bat behar izango da. Laguntza berezi hori zaintza zerbitzuko arduradunen batek beteko du edo bestela guraso elkarteko beste bolondres batek bete beharko du. Izan daiteke boluntario hauek bere seme-alabekin joatea zaintzara bere laguntza eskeintzera, eskolarako bidaia aprobetxatuz; horregatik, egoera hauek aurreikusteko eta zerbitzua behar bezala kudeatu ahal izateko, esporadiko eta ez-ohiko erabiltzaileei hilabetearen hasieran zaintza zerbitzua zein aste edo egunetan erabiliko duten adieraziko dute. Beti ere, erabilpen eguna baino aste bete lehenago, gutxienez.

#### 7. OHARRAK, ALTAK ETA BAJAK:

Oharrak, altak, bajak eta ohiko/ez-ohikoen izaeran aldaketak kurtso hasieran eta hiruhilekoa amaitu baino aste bat lehenago adieraziko dira. Ohikoak izan nahi dutenek, hiruhilekoaren lehenengo bi asteak dituzte beraien aukera berresteko. Epe hau pasata, ohiko erabiltzaileei hiruhilekoko kuotak kobratuko zaizkie.

Ez-ohikoak, hilabetearen hasieran izena eman behar dute eta zerbitzua erabili baino aste bat lehenago berretsi behar dute (informazio hau hiruhilekoaren hasieran ematen bada zerbitzuaren kudeaketa hobeagoa izango da). Ez-ohikoak zerbitzua erabili nahi izatean aste bete lehenago abisatu beharko dute. Era berean, aste bete lehenago pasa beharko da abisua zerbitzua ez dutela erabiliko esaten. Bestela, zerbitzua kobratuko da nahiz eta ez erabili.

Erabiltzaile esporadikoak hiruhilekoan zehar ager daitezke, abisua aste bat lehenago emanaz gero, zerbitzuaren errefortzua ondo prestatu ahal izateko (informazio hau hiruhilekoaren hasieran ematen bada zerbitzuaren kudeaketa hobeagoa izango da).

Era berean, aste bete lehenago pasa beharko da abisua zerbitzua ez dutela erabiliko esaten. Bestela, zerbitzua kobratuko da nahiz eta ez erabili.

Erabiltzaile ez-ohiko eta esporadikoak ez badute aste bete lehenago abisatzen eta laguntza berezia ezin bada behar bezala antolatu, ezin izango dute zaintza zerbitzua erabili.

8. EGUTEGIA:

Lau urte edo gehiagoko ikasleak egokitzapenik ez dutenez eta hiru urtekoek egokitzapen motzagoa dutenez, irailean goizeko zaintza zerbitzua egongo da. Hau ez da egongo hiruhilabeteko konpromisora lotuta baina modu berean funtzionatuko du (ohikoek zerbitzuaren kosteari erantzungo diote). Urrian, bi urteko umeak sartzerakoan, aipatutako hiruhilekoko konpromisoa hasiko da.

Asteazkenetako zaintza urrian hasiko da.